

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

INGURUMEN ETA HIRIGINTZA SAILA

210/2016 Foru Agindua, abuztuaren 30ekoa, hasierako onarpena ematen diona permakultura jarduera Arratzua-Ubarrundiako udalerriko lurzoru urbanizaezinean jartzea interes publikokotzat jotzeari buruzko espedienteari

AURREKARIAK

Pedro Ferrero Diez jaunak Arratzua-Ubarrundiako Udalari obra baimena eskatu zion permakultura jarduera egiteko, Arroiabeko 3 zenbakiko poligonoko 1250 eta 1251 lurzatietan, urbanizaezin sailkatutako eta nekazaritza eta abeltzaintza intereseko zona babestu kalifikatutako lurzoruan.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legeak, lurzoru eta hirigintzarenak, arautzen duen baimen izapidea betetzearren, Arratzua-Ubarrundiako Udalak espedientea bidali zuen, udal arkitektoaren txostena barne.

OINARRIAK

Sail honek eskumena du aztergai den espediente hau ebazteko, Diputatu Nagusiaren uztailaren 19ko 162/2011 Foru Dekretuaren arabera.

Ekainaren 30eko 2/2006 Legearen 28.5.a) artikuluan ezarritako araubideari jarraituz, aplikatzekoa den legedi sektorialak edo lurralde planeamenduak interes publikokotzat jotako zuzkidurak, ekipamenduak eta jarduerak ezartzeko xede espezifikoa eta bakarra duten jardunak egin ahal izango dira lurzoru urbanizaezinean, baldin eta, gainera, kasu bakoitzean haien interes publikoa adierazten bada dagokion foru diputazioaren ebazpenaren bidez, aldez aurretik hogeit eguneha jendaurrean edukitzeko izapidea beteta.

Aztertutako kasuan, hasierako onarpena izapide bat baino ez da, hots, prozedura bultzatzen duen eta edukia argitaratzea ahalbidetzen duen izapidea baino ez, eta ez du xedatzen, inondik inora, behin betiko onarpenerako hartu beharreko erabakirik.

Horregatik, eta dagozkidan eskumenez baliatuz, hauxe

XEDATZEN DUT

Lehenengoa.– Hasierako onarpena ematea Arratzua-Ubarrundiako udalerriko Arroiabeko 3 poligonoko 1250 eta 1251 lurzatietan permakultura jarduera jartzea interes publikokotzat jotzen duen espedienteari, Pedro Ferrero Diez jaunak sustatutakoari. Lurzati hori urbanizaezin sailkatutako eta nekazaritza eta abeltzaintza zona babestu kalifikatutako lurzoruan dago.

Bigarrena.– Espedientea jendaurrean edukitzeko epe bat hastea, hogeit eguneha, foru agindu hau ALHAOn argitartu eta hurrengo egunetik aurrera; epe horretan, egokitzen jo adina alegazio aurkeztu ahal izango dira, eta espedientea Lurralde Antolamenduaren eta Hirigintzaren Zerbitzuan aztertu ahal izango da.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko abuztuaren 30a

Ingurumen eta Hirigintza Saileko foru diputatua
JOSEAN GALERA CARRILLO